

Intxaurrondo

**Irutxulo**

Hilaren 26 eta 27an gidoigintzari buruzko ihardunaldiak egingo dira Larrotxene kultur etxean.

**E**uskal Herriko Gidoilari Profesionalen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eta Autore eta Editoreen Elkarte Nagusiak antolatuta dituzte ihardunaldiak. Ekimenaren helburu nagusia zine eta telebistako gidoi ereduetan gertatu diren eta etorkizun hurbil batean gertatuko diren aldaketan azterketa sakona egitea da.

Euskarri teknologiko berrien sorkuntzak zine eta telebista formatuetan eduki dezakeen eragina aztertu nahi da. Ikus-entzunezkoen esparruko hainbat profesionalak parte hartuko dute ihardunaldiotako hitzaldietan.

**Hainbat adituk parte hartuko dute hiltzaldietan, hala nola, Josean Muñozek eta Angel Amigok**

# Gidoigintza Ihardunaldiak



Telebista formatuen ugaritzeak gidoigintzan izango duen eragina aztertuko da ihardunaldiotan.

**Irudia, artea ala merkataritza?**

Hilaren 26an, 10.00etan hasiko dira hitzaldiak. «Etor-kizuneko irudia: artea ala merkataritza» izenekoan, Pascale Reik, Rolando Pardok eta Marck Rechak parte hartuko dute. 12.00etan tebistako formatu berriak izango dituzte hizpide Ines Intxaustik, Virginia Yaguek, Alejandro Gomezek eta Enrico Gomak. Arratsaldean, berriz, teknologia berriak aztertu dituzte hainbat profesiona-

lek, hala nola, Jesus Puellok eta Marta Monfortek.

Hilaren 27an, 10.30etan zinearen txanda izango da eta Angel Amigok eta Ana Diezek «Film on baten sekretuak» izeneko hitzaldia eskainiko dute. Jarraian, animazioaren munduaz jardungo dute Josean Muñozek, Angel Alonsok eta Biaffrak. Arratsaldean hausnartzeko aukera izango dute parte hartzaileek Alicia Vizcarra, Enrique Diaz eta Andres Maia- ren laguntzaz.

**II. Haur Festa**

Hilaren 27an, Plazara Goaz auzoko euskara elkartearen ekimenez, II. Haur Festa egingo da Ipar Haizea elkartearen egoitzan eta Bernart Etxepare plazan arratsaldeko 16.30etatik 18.30ra bitartean. 4-8 eta 8-12 urte bitarteko haurrek parte hartzerik izango dute jaietan.

**Seikotea Sanebastianetan**

Auzoko sei danborrada irtengo dira San Sebastian egunean: Irurak, Intxaurra, Artzak Ortzeok, Boskozaleak, Mons eta Zulo Zahar. Ordezkaritza zabala, beraz, auzokoa.

**Ipuinaren ordua**

Lau ipuin saio egingo dira datozen egunotan auzoko kultur etxetan. Larrotxenen «Kolonbian diote...» (hilak 19) eta «Zuhaitzen artean gabiltza» (hilak 26) izango dira entzungai eta Intxaurrondo Berri kultur etxean, berriz, «Sorginen beldur?» (hilak 22) eta «Non zaude, ikustezin?» (hilak 29).

**LANBRO TABERNA DONOSTIA**

OIHALDENDA

*El telar*

Alfonso VIII, 8  
Tel.: (943) 42 42 10

etxekalte